

**Ikastolaren Eguna,  
iruditan**

**Udan haur sahararrak  
etxean hartzeko deia**

**GuraSOS: "Osasuna  
dago jokoan"**

# noaia



**Greba mugagabea hasi dute**



**FINKA ADMINISTRATZAILEA**  
**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**  
**INMOBILIARIA**  
**ASEGURUAK**


**943 573 693**  
*Baxoalde 4 behea, ORIO*

**BIDAIA TALDEAN**  
Irteera Lasarte-Oriatik

**ISLANDIA**



**aurora borealak**  
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -



Erreserbak eta informazioa bulegoan



**NOAO BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10  
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613  
info@noaobidaiak.com  
www.noaobidaiak.com



**USURBILGO**  
**LANBIDE**  
**ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**943 36 46 00**

**www.lhusurbil.eus**

**Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduek**

Administrazioa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia  
Produktio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**AURREMATRIKULA ekainaren 6tik 17ra**



## Albiste iruditan

# 36ko gerrako arrasto gehiago, Txaldatxurren

Zubieta gaina, borroka gogorren gune izan zen 36ko gerran. Geroz eta argiago uzten dute, pixkanaka agertzen doazen arrastoei. Azkenak, aurreko larunbatean azaleratu zituzten; bi hezur, urrezko 2 hortz eta gudari batenak izan daitezkeen bota zatiak aurkitu zituzten Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko Islada Ezkutatuak taldekoek, besteak beste bidelagun izan zuten Jexux Mari Errekondo usurbildarraren laguntzaz. Gunea babesteko neurriak eskatu eta Txaldatxur 36ko gerrako bataila lekuen mapan kokatzea eskatzen zieten taldetik, larunbatean, Txaldatxurrera gerturatutako, udaletako, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Inguru hartako lubakiak txukundu, garbitu eta egokitzen, lan handia egiten ari da Islada Ezkutatuak. Garai hartan jatzotakoa ahaztu ez dadin.



Argazkian, Islada Ezkutatuak taldeko kideak, Usurbil eta Lasarte-Oriako udal ordezkariekin batera.

## Laburrean

### Guraso bilera, Ziortzako kanpaldiaz

Larunbat honetarako deitu dute, 11:00etan Sutegin. 2016ko kanpaldira doazen gazteen gurasoei zuzendutako bilera da. "Bertan kanpaldiko informazioa emango dugu. Oso garrantzitsua da joatea".

### Larunbat honetan, Udafesta Gaztelekuan

Uda parterako ekimen mordo iragarri dute: ekainaren 11n, Udafesta ekainaren 18an pizza tailerra, DBH 1 taldekoentzat. Informazio gehiago: 943 371 050 / gaztelekua@usurbil.eus

### Sagardo Eguneko mariskadak badu jaberik

Sagardo Eguneko mariskadaren zozketan, hau izan zen zenbaki saritua: 0848. Irabazlea dagoeneko agertu da, Etxealdiako bizilagun bat, hain zuzen ere.

# noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:** Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda, [publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzio@noaua.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Arana, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maialen Unanue

## Denak ez (omen) du balio

Entzule guztiak egin genuen barre Iñigo Suberbiola medikuak, OEIT Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldekoa ere badenak, esan zuenean "garai batean" medikuak "errespetatutako jendea" izaten zirela. Sinesgarritasun bat aitortzen zitzaizela mediku izateagatik. Orona-Ideo eraikinean esan zuen, GuraSOSek antolatutako ekitaldi dibulgati- boan. Denok egin genuen barre, esan bezala, baina gutxi- k imaginatuko zuten denbora gutxira politikari batek, hain justu, medikuen sinesgarritasuna kolokan jarriko zuenik. Edo ez, behintzat, publikoki.

Gipuzkoako Aldundia tematuta dago. Beno, orain Aldundian daudenak tematuta daudela esatea da zuzenena. Erraustegia nahi dute, kosta ala kosta, eta, itxuraz, pauso erraldoiak ari dira ematen bide horretan. Antza, hauteskundeak "irabazteak" ematen die legitimitatea halako azpiegitura polemiko bat egiteko. Presaka,

eztabaidarik gabe. Medikuek aurka agertu arren; gurasoak mobilizatu arren; kolore askotako herritarrek ezetz esan arren. Eta, gainera, euren zementuzko aurpegiarekin, horien guztien kontra egiteko adorea dute, esanez "ezker abertzalea" dela atzean dagoena.

Halako adierazpenak egin dituenen itsua da gutxienez, eta gorra, baina ez mutu, antza. EAJ eta PSE-EE sumindu egiten ditu zenbait kontutan EH Bildu eta Ahal Dugu (oposizioko talde esanguratsuenak aipatzearen) bat etortzea zenbait gaitan. Eta, gainera, aurpegiratu egiten diete bat etortzea, beraiek gauza bera egin arren. Bada, kasu honetan, erraustegiaren kasuan, bi taldeek bat egin dute, eta Ahal Dugu-ren atzean, sentitzen dut, baina ezker abertzaletik gutxi duen jendea dago. Bat datozela gai askotan? Noski, aurreikus zitekeen. Beste kontu batzuetan kilometrotako distantzia izango dute, ziurrenik. PPK berak, pentsa, esan du kezkatu egiten duela erraustegiaren bideraga-

rritasun ekonomikoaren txostenak.

Baina itzul nadin harira. Profesionalei hala deitzen zaie modu profesionalean lan egiten dutelako. Eta sinesgarritasuna aitortzen diegu denok hori horrela delako. Gaixo gaudenean sendatu gaitezen lan egiten dutelako. Zein da aldundia ezbaian jartzeko medikuen sinesgarritasuna? Eta, bide batez, Aldundiak berak zein sinesgarritasun du esateko erraustegiek ez dutela inolako osasun arazorik sortzen? GuraSOSen jardunaldi horretan esan zuten, Fernando Palacios zientzialariak uste dut: erraustegi modernoek ere kutsatu egiten dute. Eta ez gaitezen okertu: horixe bera da politikariek ahotan darabiltena jendartearen ustez lasaitzeko: "Eh, gurea erraustegi modernoa izango da, ez du batere kutsatuko".

Gipuzkoa erdibituta daukagu: lau alderdi nagusitik bi erraustegiaren alde daude eta beste biak kontra. Nola egin dezake aurrera halako azpiegitura batek, jendartearen hain

zaituta dagoenean? Zergatik ez dituzte galdeketak egiten orain, atez atekoaren kontra egin bezala, erraustegiaz? Nola azaldu dezakete dena korrika, presaka eta ezkutuan egin behar hori, gardentasunaren eta parte hartzearen domina aparrean jartzen duten aldi berean?

Osasuna ez da jolaserako. "Denak ez du balio", zioen Imanol Lasak. Bada, osasunarekin jolasteak ere ez du balio. Eta herritarrei adarra jotzeak ere ez. Baina badi-rudi erraustegiaren aurka dagoen oro kritikatzeko eta, are, medikuen sinesgarritasuna auzitan jartzeak balio duela. Edo beraientzat, gutxienez, bai, libre dela dirudi. Bada, ez: denak ez du balio. Are gutxiago herritarren osasunarekin jokatzeko gutxi batzuek poltsikoak ondo betetzeko baino erabili nahi ez dutenean. Maiatzaren 29an giza katean esan zuten bezala, argi izan dezatela: erraustegia inposatzen saiatzen bazarete, aurrean izango gaituzue.

Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | **Maialen Unanue** | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Aritz Gorriti

### Joseba Larratxeren komikia



## 2017an egingo da galdeketa Usurbilen

**E**uskal Herria bere etorkizuna erabakitzen hasia da. Erabakiaren aroan sartu gara, igandean 34 udalerriatan ospatu ziren galdeketen ondoren. Usurbilgo Gure Esku Dagok datorren urterako iragarri du herri galdeketa.

36.884 herritarrek eman dute jada bozkatzeko urratsa. Goierri eta Ispasterren “Nahi duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?” galdetu zieten herritarrei. Debagoienan eta Azpeitian “Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?”. Guztietan baiezkoa nagusitu da.

%95,2a (35.174 lagun) euskal estatuaren alde agertu da. Oro har, %30aren bueltakoa izan da parte hartzea. Hainbat udalerriatan %50eko muga gainditu du parte hartzeak, eta batzuetan %70etik gorakoa



Udaberri honetan 34 udalerrietan egin dira herri galdeketa. Datorren urtean beste 60 udalerrietan egingo dira.

izan da. Gure Esku Dago mugimendutik poza agertu dute; “Lorpen handia da, jauzi kualitatiboa”. Bide luzea jorratzeke dagoen arren, zailena gai hau mahai gainean jarri, herrita-

rrak batu, elkarrengandik ikasi, prozesua eta galdera adostu eta erabakiraino gauzatzea izan dela zioten. “Eta horixe da hain zuzen egin duguna”, zioten igande gauean, Gure Esku Dago

mugimendutik. Gogoan izan, hurrengo urtean beste 60 udalerrietan ospatzekoak dira galdeketa. Beste 250.000 herritarrek erabaki ahalko dute. Tartean, usurbildarrek.

## Hauteskundeetako mahaikideak, hautatuak

**G**uztira 72 herritarrei egokituko zaie bozketa egunez antolaketa lanetan parte hartzea. Zozketa bidez hautatuak suertatu zirenenoi, egunotan helduko zaienez jakinarazpena.

Ekainaren 26an Espainiako Gortearako hauteskundeak izango ditugu. Madrilgo Diputatuen Kongresu eta Senatu berria osatzeko bozketa egun horretan, Usurbilgo Udalak egokituko dituen 8 hauteslekuetarako mahaietan herritarrek egongo dira. Ohi bezala, azken osoko bilkuran zozketa bidez erabaki zen nortzuk osatuko dituzten hauteslekuotako mahaia. Gogoan izan, mahai bakoitza lehenakari batek eta bi bokalek osatu eta hauetako bakoitzak, ordezkoko beste 2 lagun izan behar dituela.



Posta bidez bozkatzeko eskatzeko epea ekainaren 16an itxiko da.

### Posta bidezko bozka

Posta bidez bozkatzeko eskatzeko epea ekainaren 16an itxiko da. Eskaera Correosen egin behar da. Posta bidez bozkatzeko azken eguna ekainaren 22a izango da. Gogoan izan, behin eskaera eginda ezingo dela ekainaren 26an hauteslekuetan bozkatu. Eta bestalde, martxoaren 1a baino lehen erroldatua zauden udalerrian bozka dezakezula.

### Egutegia

- Ekainak 10-24: hauteskunde kanpaina.
- Ekainak 16 osteguna: postaz bozkatzeko eskaera egiteko azken eguna.
- Ekainak 22 asteazkena: postaz bozkatzeko azken eguna.
- Ekainak 25 larunbata: go-goeta eguna.
- Ekainak 26 igandea: bozketa eguna.

### Asteburu honetan hasiko da hauteskunde kanpaina

Momentuz Usurbilgo EHBildu da ostiral honetan abiatuko den hauteskunde kanpainarako ekitaldiak deitu dituen eragile politikoko bakarra.

#### Ekainak 10, ostirala

“EH Bildu GAZTEAK aukerak zabaltzera goaz”.

19:00tatik aurrera, Sutegi aurrean izango dira, “gure ideiak eta aukerak zabaltzen musikaz girotuta”.

22:00 Argazki masiboa frontoian (futbito partiduen tartean).

#### Ekainak 11, larunbata

19:00etan Frontoitik abiatu eta trikitiaz girotuta, kanpainako kartelak jarriko dituzte.

Deitzailea: Usurbilgo EHBildu.

# Aldaketak 2016ko Zerga Ordenantzan

Gobernu taldeak aurtengo Zerga Ordenantzan zenbait aldaketa egitea proposatu zuen maiatzaren 31ko osoko bilkuran. Batetik, eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zerga ordenantzaren araudian, energia aurrezteko instalakuntzak jartzen dituztenentzat %95eko hobariak jasotzeko erraztasun edo aukera gehiago eskaintzeko. Aurrerantzean “existitzen diren eraikinen kasuan, araudiak ezarritako parametroak betetzea ezinezkoa denean ere aplikagarri izango da, baldin eta modu eraginkorrean energia aurrezteko lortzen bada”.

Hileta zerbitzuetako tasan ere aldaketak txertatzea proposatzen du udal gobernu taldeak. Batetik, Aginagako eta Usurbilgo hilerriko zerbitzuetatik ordaindu beharreko diru kopuruaren artean bazen alderik orain arte. “Justifikatua ez zegoen ezberdintasuna”, udal gobernu taldetik azken osoko bilkuran aipatzen zuten. Egoera hau aldatzea proposatzen dute.

Honez gain, hilerri zaharra husteko bidean da. Bertan diren gorpuak ateratzeko ordain-



Udal kirol zerbitzuei loturiko zerga ordenantzan ere aldaketak egongo dira.

## HILETA ZERBITZUAK

**“Aginagako eta Usurbilgo hilerriko zerbitzuetatik ordaindu beharreko diru kopuruaren artean bazen alderik orain arte. Justifikatua ez zegoen ezberdintasuna. Egoera hau aldatzea proposatzen dute”**

du beharreko diru-kopuruan ere aldaketak txertatu nahi ditu gobernu taldeak. Gaiak tratamendu berezi bat behar zuela ikusita, gorpu bat baino gehiago atera behar dituztenen kasuan, prezioa murrizteko ahalegina egin asmo du Usurbilgo Udalak.

## Hobekuntzak udal kirol zerbitzuetan

Udal kirol zerbitzuei loturiko zerga ordenantzan ere zenbait xehetasun aldatu nahi ditu gobernu taldeak. Besteak beste, 18 urte betetzen dituztenei 18 urtez azpiko tarifa aplikatuko zaie. Beste modu batera esanda, helduen tarifa 19 urtetik gorakoentzat izango da. Bestalde, abonauk automatikoki urtero luzatuko dira. Baja eman nahi duenak, abenduaren 20a baino lehen bideratu beharko du eskaera. Beste bi aldaketa; 100 eurotik gorako kostua duten urte osoko ikastaro eta abonoak bi zatitan ordaindu ahalko dira.

Eta “ordainketak, txartel bidez edo Kiroldegiak horretarako dituen kontu korronteetan egin beharko dira. Ez da onartuko 10 eurotik gorako ordainketarik eskudirutan”.

## Erreklamazioak aurkezteko aukera 30 egunez

Aldaketok gehiago osoz behin behinean onartu zituen udalbatzak maiatzaren 31ko osoko bilkuran, EHBilduren eta PSEren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen. Udalbatzak hartutako erabakiari erreklamazioak aurkezteko aukera egongo da 30 egunez, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki taulan argitaratu ostean. Tarte horretan erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betiko onartutzat joko da. Bestela, epe hau igarota, “Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edota, behin behineko akordioan aipatutako adierazpenak onetsiz”.

# 2017ko ekainaren 30a jai eguna izango da

Usurbilgo jai eguna, urtero uztailaren 2a izan ohi da, Santixabel Eguna. 2017an ordea ez da hala izango. Datorren urteko Usurbilgo jai eguna, ekainaren 30a izango da, egutegi arrazoiengatik.

Urtebete barru, festetako egun nagusia, uztailaren 2a, igandez egokituko da, eta honenbestez, Usurbili dagokion beste jai egun bat hautatzeko aukera zuen Udalak.

Ekainaren 30a proposatzen

du udal gobernu taldeak, aldaketarik ez bada, herri hau urtebete barru Santixabeletan murgildua egongo den aste-buruko lehen eguna izango baita.

## Soilik 2017 urtean

2017ko Usurbilgo jai egutegirako aldaketa proposamen hau, maiatzaren 31ko osoko ohiko bilkuran aurkeztu zuen EHBilduk. Aho batez onartu zuen udalbatzak. Aldaketa honek, 2017ko egutegiari eragingo dio soilik.



2017an uztailaren 2a igandearekin egokituz, Usurbilgo jai eguna ekainaren 30a izango da, ostiralarekin.

## Bi ikuspegi, hezkuntza ereduaren gainean

Udalerrri honetako hezkuntza eskaintzaz mozio bana aurkeztu zuten EHBilduk eta EAJk maiatzaren 31ko osoko ohiko bilkuran. EAJk Zubietan eta Aginagan eskola publiko bana dutela gogorarazita, Usurbilek halako ikastetxerik ez zuela eta norabide horretan, Usurbilek ere eskola publikoa izateko tramitazioa abiatzea eskatu zuen mozio bidez.

### EAJ eskola publikorako lurzorua erreserbatzearen alde

Jaurilaritzari eraikina kokatzeko lurzorua erreserbatzea eskatzen diote jeltzaleek eta Udala "idazten ari den Plan Orokorren baitan" lur erreserba hori jasotzea. Hezkuntzako Azpiegitura Planean Usurbilgo eskola publikoaren beharrak jasotzeko eskaria ere egin zuten, eta Udalak trami-teak abia ditzala, "eskola publikoa eraikitzeko behar diren giza eta material baliabideak aurreikus ditzan". Esklusiboki Eusko Jaurilaritzak kudeatuko duen eskola defendatzen dute jeltzaleek.

Usurbilek eskola publikoa eta Udarregi Ikastola izatea proposatzen dute jeltzaleek. Herri honek duen biztanle kopurua aintzakotzat hartuta, bi aukerak izateko eskubidea dutela usurbildarrek. Aukeratzeko aukera defendatzen dute. Ildo beretik mintzatu zen ere Fermin Orue-Echevarria azken osoko bilkuran. Aurtengo udal aurrekontuetan eskola publikoa eraikitzeko lehen pausoak ematea, udal gobernu taldeari lurzorua bilatzen hastea eskatu ziola gogorarazi zuen PSE-ko zinegotziak.

### EH Bildu: "Ez da irtenbide egokia"

EHBildu ere sistema publi-



EAJ-PNVk aurkeztu zuen mozioak PSEren babesari jaso zuen. Hala ere, ez zen onartua izan.

#### BI MOZIOEN BOZKETAK

**"EAJren mozioak PSEren babesari jaso zuen. EHBilduk aurka bozkatu zuen. Honenbestez gehiengoz atzera bota zuten jeltzaleen proposamena. EHBilduren mozioan alderantzizkoa gertatu zen; EAJ eta PSE udal taldeek aurka bozkatu zuten arren, EHBilduren aldeko babesarekin gehiengo osoz onartu zen"**

koaren alde agertu zen, baina ez dator bat eskola publiko berri bat eraikitzearekin. Udal gobernu taldearen ustez, horrek herria bitan zatitzea ekarriko luke eta ekonomikoki ere oso garestia litzateke. Gainera, halako esperientziak bizi izan dituzten herrietan segregazioak dakartzan arazoak ikusita, orain guneotan ere konfluentziarako joera nagusitzen ari dela adierazi zuten gobernu taldeak. Honenbestez, EHBildurentzat oposiziotik planteatzen dena "ez da irtenbide egokia". Eskola publiko berri bat eraiki beharrean, Zubietan eta Aginagako eskolak "zaindu eta indartu behar ditugu" eta Udarregi Ikastola doako bihurtzeko bidea jorratzeko borondatea azaldu zuen udal gobernu taldeak.

Horretarako, "Jaurilaritzari eskatzen diogu Hezkuntza Lege be-

rria garatu dezala lehenbailehen. Lege horretan euskal hezkuntza-eredu propio baten oinarriak finkatu behar dira, ikastetxe publikoen eta itunpekoen sare koordinatu bat eratuz. Hezkuntza Lege berriak aukera ireki behar luke herrian dagoeneko dauden ikastetxeen doakotasuna bideragarri egiteko. Udalak konpromisoa hartzen du bide horretan lan egiteko", adierazi zuten EHBildutik mozio bidez.

### EAJren mozioak PSEren babesari jaso zuen

EAJren mozioak PSEren babesari jaso zuen. EHBilduk aurka bozkatu zuen. Beraz, gehiengoz atzera bota zen jeltzaleen proposamena. EHBilduren mozioan alderantzizkoa gertatu zen; EAJ eta PSE udal taldeek aurka bozkatu zuten arren, EHBilduren aldeko babesarekin gehiengo osoz onartu zen.

### Iazko Kontu Orokorra, onartua

Jendaurreko epean inork ez du erreklamaziorik aurkeztu. Maiatzaren 31ko osoko bilkurara eraman zuen gaia udal gobernu taldeak, behin betiko onarpena emateko. Gehiengo osoaren babesari jaso zuen proposamenak; EHBilduk eta PSE-k alde bozkatu zuten. EAJ abstenitu zen.

### Gertu Txartela, erabilgarri

Oiardo Kiroldedirako, Sutegi udal liburutegirako, Potxoenerako eta Garbigunerako giltza, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan erosketak ordaindu, dirua atera edota deskontuak aplikatu eta zozketetan sariak irabazteko aukera emango duen tresna dugu Gertu, Hurbilago Elkartea, Usurbilgo Udala eta Rural Kutxaren arteko elkarlanen sortu den VISA txartel berria. Eskaera egin proiektua sustatu dutenen egoitzetan. Egun gutxira jaso eta erabili ahalko duzue.

### %10eko deskontuak, orain eskuratuz gero

Txartela orain eskuratzen duzuenok gainera, Hurbilago Elkarteko establezimenduetan %10era arteko deskontuak aplikatuko zaizkizue ekainean. Eta Gertu Txartela aktibatzen duten lehen mila bezerok opari bana jasoko dute Rural Kutxan.

### Artzabal jatetxeko kudeaketa zerbitzua, esleitu

Gure Pakea Elkarteko Artzabal jatetxea kudeatzeko zerbitzu kontratua Igor Gorritiri esleitzea onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran, aho batez. 5 urterako eta urtez urte beste 5 urterako luzagarria izango da kontratua.



Igor Gorritiri esleitu diote. 5 urterako kontratua izango da.

# Errigorako kontserba-loteak jasotzeko epea ekainaren 14an amaituko da

**A**rakastatsua suertatu da Errigoraren azken kanpaina. Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen salmenta sustatu eta euskalgintza bultzatzeko kontserba loteen azken ekimenak, egitasmo honekiko atxikimendu kopurua gorantz doala argi erakusten du. Pentsa, eskaerak egiteko epearen baitan, NOAUA! Kultur Elkartean, Udarregi Ikastolan eta Internet bidez, guztira 97 kontserba lote eskatu dira.



Guztira 97 loteren eskaera egin da Usurbilen. NOAUA!tik pasa behar da orain eskatutakoa jasotzera.

NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan ditugu dagoeneko. Jaso ez dituzuenok, ekainaren 14a baino lehen etorri biltzera. Ordainketak ere hamabiko kontserba loteak eskuratzerakoan egin beharko dira. Zenbakitan, Nafarroa hegoaldeko zainzuri eta pikillo piperrek

izan dute arrakasta gehien. Honatx Errigoraren kanpainak Usurbilen izan duen harrera:

- Zainzuriak ("El Escolar" eta "Iturri"): 23.
- Potxak ("La Churta" eta "Maria Jesus"): 6.
- Orburuak ("Ebron" eta "Maria Jesus"): 11.

- Barazki-menestra ("Almanaque" eta "Maria Jesus"): 14.
- Pikillo piperrak ("El Escolar" eta "Iturri"): 22.
- Kremak ("Pedro Luis"): 4.
- Tomate frijitua ("Pedro Luis"): 17.

Informazio gehiago: [errigora.eus](http://errigora.eus)

## Banketxeen aurkako sabotaiak

**H**erriko zenbait banketxeen aurkako sabotajea egin zuen ekainaren 2an. Zenbait banketxe atari kaltetuta esnatu ziren. Rural Kutxan esaterako "Lapurrak!" pintada egin zieten, kutzazaina kaltetzearekin batera. Kutxabank atariko kutzazaina ere kaltetu zuten, baita BBVA banketxeko sarbidea ere.



Ekainaren 2an egin ziren bankuetxeen aurkako hainbat ekintza.



## Saritu berria, NOAUA!ko zozketetan

20 urte bete berri dituen NOAUA! Kultur Elkartek opariak banatzen segitzen du, egitasmo hau laguntzen ari zireten bazkideon artean. 2 laguntzako talasoterapia zirkuituaren zozketa egin berri dugu. Iruditan duzue oparia pozik asko jaso duen zorteduna; Pello Zumeta Be-rætxe. Zorionak!

## Udan ere, euskara ikasteko aukera

Euskalduntzeak ez du oporrik, ezta udan ere. Euskara ikasi edo hobetzeko eskaintza zabala prestatu du AEK-k. Ikastaro trinkoak batetik, Etumeta AEK euskaltegian. "Euskaltegira hurbiltzerik ez edota opor lekutik aritu nahi dutenentzat, on-line ikasteko aukera ere izango da AEKn", ohartarazi dute. Eta Usurbildik kanpo, barnetegiak antolatu dituzte Euskal Herriko txoko ezberdinetan; euskalduntze eta familia barnetegiak, barnetegi ibiltariak, Xiberera ikasteko barnetegiak...

Informazio gehiagorako:

- [usurbil@ae.eus](mailto:usurbil@ae.eus)
- 607 609 379
- [muntteri.blogspot.com.es](http://muntteri.blogspot.com.es)
- [ae.eus](http://ae.eus)

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

**Antxieta**  
Patriketa jatetxea  
· bazkariak EGUNERO  
· afariak, asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak ✦  
ogitartekoak ✦  
plater konbinatuak ✦  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**



# Larunbat honetan Bentan, The Hastelen´s taldearen kontzertua

Larunbat arratsaldeko poteo garaia musikatzera datoz astelehen arratsaldero Zumarten biltzen den The Hastelen´s taldekoak. Entsegu saioak bukatu eta Benta tabernara joan ohi dira tragoxka bat hartzera. Horregatik, “ederki zaintzen gaituztenez” eta ikasurtea borobiltzeko, taberna atariko plazatxoan emanaldia eskaintzea erabaki dute. Larunbat honetan, ekainaren 11n, 20:00etan hasita, Jon Azpiazu (baxua), Iñaki Zugasti (bateria), Gaizka Lasa (gitarra elektrikoa), Ata Romero (txirula, kitarra, armonika), Alex Romero (ahotsa), Ainhoa Pikabea (eskusoinua) eta Joxean Anduaga (teklatua) aurkituko dituzue Benta atarian. Kontzertura joateko gonbita luzatzen dute, eta taldeko abesti batek dioen moduan, “hartukottugutraguak”.



Benta atariko plazatxoan joko dute. 20:00etan hasiko da kontzertua.



**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

PUNTAPAX 8, USURBIL 943 36 91 39  
WWW.ARTZABALJATETXEA.EUS

EKAINAK 6TIK AURRERA, ASTELEHEN,  
ASTEARTE ETA ASTEAZKEN GAUETAN ERE  
SUKALDEA IREKITA!

OSTEGUNETAN  
18:30ETATIK - 21:00ETARA  
PINTXO POTE!



*Gidabaimenaren teorikoa euskaraz atera  
eta izan sarria irabazteko aukera!*



Andoain



Urnieta



Lasarte-Oria



Hernani



Usurbil



Astigarraga

*Dakizuna erabili  
ez dakizuna ikasteko*



**GIDABAIMENA MERKEAGO  
LOR DEZAKEZU!!**

**BURUNTZALDEAN NON:**

Andoain		
BENGOETXEA MENDI	Juan Bautista Erra 9 Agustin de Leiza 11	943 59 44 06 943 50 06 04
Astigarraga		
OTAMENDI	Zubiondo 14 - LOIOLA	943 45 11 07
Hernani		
HERNANI	Latsunbe 3 Urbietza 7	943 55 05 34 943 55 34 16
LAGUNAK OTAMENDI	Karobieta 1 Izpizua 1	943 33 14 19 943 55 35 45
Lasarte-Oria		
LASARTE MUGICA	Nagusia 5 Ganbo 1	943 37 06 92 943 36 22 75
Urnieta		
SOLOZABAL	Idiazabal 24-1C	943 33 41 69
Usurbil		
SOLOZABAL	Irezu 2	943 37 69 36

MERKEAGO  
ATERATZEA  
NAHI?

**GIDABAIMENA EUSKARAZ!!**

**AZKEN TEKNOLOGIAN  
MURCHILDUTA  
IRUDIEKIN JOLASEAN**



**HAUXE DUZU GIDABAIMENA  
ATERATZEKO MODURIK  
ERAKARGARRIENA!!!**



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskarako Batzordeak

# Drain

## gidabaimena EUSKARAZ

**ETA HORI GUTXI  
BALITZ...**

**ZOKKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA  
10 SARI BURUNTZALDEAN:  
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GELIENEZ)**

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK:**

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIEN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA  
2016eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gaingitu dutenek hartuko dute parte zokketan. (Esku-arri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONDA

AUTOESKOLA

# Jazarpenen gaineratik, zutik

**M**aiatzaren 29an osasunaren alde eta Erraustegiaren aurka Donostian egin zen giza-katea, Gipuzkoa plazan amaitu zen. Mobilizazio osterako, “ez goaz etxera!” iragarri zuten aurrez, sare sozialen bidez Gipuzkoa Zutik ekimenekoek. Esan eta hala egin dute gaur arte (aldizkaria inprentara bidean zen arte behintzat bai). Gipuzkoa plaza, erraustegiaren eta eliteen aurkako eta bizitza duinaren aldeko plaza sinbolikoan bihurtu dute.

Asanbladak, elkarretaratzea, hitzaldi, emanaldi eta deialdien gunea izan da. Biltzeko, hitz egiteko eta erabakiak modu asanblearioan hartzeko tokia. Gipuzkoa Zutik hartzen ari den indarraren adierazgarri, aurreko larunbatean eginiko manifestazioa. 2.000 lagun bildu zituen mobilizazio koloretsuak.



**Maiatzaren 29ko giza katearen ondoren gorpuztu zen Gipuzkoa Zutik ekimena.**

## “Desobedientzia ez da delitua”

Tentsio uneak ere bizi izan dituzte, Donostiako Udaltzaingoa eta Ertzaintza Gipuzkoa plaza husteran joan izan direnean. Kanpaldia zapuzteko lehen saiakera, ekainaren leian egin zuten. Gipuzkoa Zutik-ek Gipuzkoa plaza utzi behar izan zuten. Gerora aske utzi zituzten bi lagun atxilotu zituen

Ertzaintzak, desobeditzea leporatuta. Gipuzkoa Zutik-ek berak larunbat eguerdian berri eman zuenez ordea, “epaileak ez du deliturik ikusi Gipuzkoa Plazako desobedientzia ekin-tzan: berehalako artxiboa eman du”.

Ekainean leian Gipuzkoa Plaza uztera behartu ostean, Bulebarrera lekuz aldatu ziren orduan, eta bidelagun berriak batu zitzaizkien. Arratsalde

hartarako iragarri zuten manifestazioan, hasiera batean Ertzaintzak bidea eragotzi eta tentsio uneak bizi izan ziren arren, azkenean Gipuzkoa plazara itzuli ziren. Bertan izan dira astelehen honetara arte. Ekainaren 6an sartu ziren Donostiako udaltzainak eta Ertzaintza Gipuzkoa plazako kanpaldian. Indar gehiagoz oraingoan. Bigarrenez trasteak hartu eta Bulebarrera jo zuten Gipuzkoa Zutik ekimenekoek. Eta polizia atzetik. Bulebarrereko kioskoan bilduta zirela inguratu zituzten, gune hura indarra baliatuta husten ahal-egindu ziren. Udaltzain eta ertzainek ordea, alde egin zuten azkenean eta bertan segi zuten Gipuzkoa Zutik ekimenekoek. Gertaturikoreen aurrean, mobilizatzerara deitu zituzten herritarrak. Aste hasiera honetan bidelagun gehiago batu zaizkie, hazten eta indartzen doan mugimenduari.

## Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren atxikimendua



**Erraustegiaren aurkako muralaren parean ondoko argazkia atera zuten.**

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko kideak Zubietan bilduta, ondoko argazkia atera zuten larunbatean.

Talde irudi honekin, osasunaren eta bizitzaren alde eta erraustegiaren aurkako Gipuzkoa Zutik ekimenarekin bat

egin nahi izan zuten mugimenduko kideek. Irudian, besteak beste, zubietar eta usurbildarrak dituzue.

### Giza-katearen oihartzuna

#### Europara heldu da

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko osasunaren alde eta erraustegiaren aurka antolatutako mobilizazioaren arrakasta nabarmendu dute, web orri bidez zabaldu duten albistean. “Erakustaldi handian” bilakatu zela azpimarratu dute. Giza-katea abiapuntutik helmugara bizikletaz garraiatu zuten mezu sekretuaren berri ere zabaldu du Zero Waste Europek (Europa Zero Zabor). Erraustegia osasunerako kaltegarria zela zioena, gai honetan arduraz jokatzeko deia egiten zuten mezua.

Artikulu helbide honetan irakur dezakezue: [zerowasteurope.eu](http://zerowasteurope.eu)

# Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria du Buruntzaldean

**B**uruntzaldeko udalek eta autoeskolek zati teorikoa prestatu eta azterketa egiteko euskara hautatzeko gonbita luzatu die beste behin, gidabaimena ateratzeko asmotan direnei. Euskara hautatzeak saria baitu eskualde honetan. Zati teorikoaren gastua ordaintzeko adinako dirusaria; 400 euro ere irabazi ditzakezue.



400 euro irabazi daitezke, teorikoaren gastua ordaintzeko adinako saria.

Horretarako, zenbait baldintza bete behar dira. Batetik, Buruntzaldeko udalerrietako batean erroldatua egon behar da; Andoainen, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan edo Usurbilen. Gidabaimenaren atal teorikoa egin eta gainditu beharko da aurten; urtarrilaren 1etik abenduaren 31rako tartean. Inprimaki bat bete eta egitasmo honetan parte hartzen ari diren autoeskolekako hauetako batean entregatu beharko da; Andoaingo Ben-

goetxea eta Mendi; Loiolako Otamendi, Hernaniko Hernani, Lagunak eta Otamendi; Lasarte-Oriako Lasarte eta Mugica eta Urnietako eta Usurbilgo Solozabal auto eskoletan.

Ekimen honetan parte hartzen duzuen guztien artean, zozketa egingo da 2017ko urtarrilean. 400 eurora arteko 10 sari entregatuko dira, udalerririk bakoitzean dagoen autoeskola kopuru adina sari; Andoainen 2, Astigarragan 1, Hernanin 3,

Lasarte-Orian 2, Urnietan 1, eta Usurbilen 1. Buruntzaldeko udalek eta autoeskolek abiatu duten kanpainaren berri etxean jasoko dute, 18 urte beteko dituzten gazteek, "baina edozein herritarrek eskura dezake informazio hori Buruntzaldeko edozein autoeskolan". Gidabaimena euskaraz ateratzera animatzen dute egitasmo honetako sustatzaileek. Iaz 113 izan ziren eskualde osoan, aurten gehiago izatea espero dute.

## Bizikletak garbitzeko toki bat ipintzea eskatzen dute

Usurbilen bizikleten garbigunea nahi eta behar dutela diote, udalerririk honetan halako zerbitzu bat faltan sumatzen dute eta. NOAUA!ra helarazi digute eskaera hau, Errazkin eta Irisasi BTTkoek. "Herrirako beharrezkoa ikusten dugu", adierazi digute.



Errazkin eta Irisasi BTTkoek bidali digute argazkia. Antzekoa ipintzea eskatzen dute.

# BAZKIDEEEN TXOKOA

**ASTE HONETAN...NOAUAIKO bazkide guztien artean zozketatuko dugun SARIA...**

+

**2 LAGUNENTZAKO ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN**

## noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkarte@noaua.eus





**Klik! batean**

## Ttun ttakun

Aski ezaguna da: Artze anaiek “txalaparta ahanzturatik jalgi, eta kultur adierazpide garaikide eta modernoetara” egokitu zuten. Sarean irakurri dugu hori. Ezezagunagoa da beste hau: Artze anaiek Lasarte-Oriako Zuaznabar familiakoekin ikasi zutela txalaparta jotzen. Argazkian dituzue Zuaznabar sendikoak. “Ikimilikilikik” erakusketaren inaugurazio ekitaldian hartu zuten parte.

Argazkia: Ion Markel

# GuraSOS: “Osasuna dago jokoan”

200 ikastetxe, ia 70.000 ikasle arriskuan dira, Zubietan kokatu asmo duten erraustegiagatik. Ez da txantxetako kontua. Gu guztioz gain, aipatu plantaren kalteak, bereziki etorkizuneko belaunaldiek sufritu ditzakete, GuraSOS mugimendutik ohar-tarazten dutenez. Errealitate gordin hau mapa batean islatu du guraso taldeak, gurasos.org atarian sartuta kontsulta dezakezue. Bertan, ikastetxe bakoitza erraustetaren zero gunetik ze distantziatara dagoen ikus daiteke. Arrisku eremuaren mapa, Eusko Jaur-laritzaren Ingurumen Saileko txosten batean oinarrituta diseinatu dute.

Lan itzela. Datuokin soilik, argi diote GuraSOS taldetik, “sinestezina da administrazio batek halako proiektu bat bultzatzea”. Are sinestezinagoa, maiatzaren 21ean Hernaniko Orona Ideon antolatu zuten dibulgazio jardunaldian plazaraturiko datuak entzunda. Esaterako, “20 sustantzia kaltegarri inguru egongo lirarteke kontrolatu gabe, horiek sortzen dituzten patologiekin”. Datu gogorak GuraSOS-etik azpimarratzen dutenez, besteak beste, Fernando Palacios zien-



GuraSOSek maiatzaren 21ean Orona Ideon antolatu zituen jardunaldietan datu deigarriak plazaratu ziren: “20 sustantzia kaltegarri inguru egongo lirarteke kontrolatu gabe, horiek sortzen dituzten patologiekin”.

## GURASOS

**“Aztertu dituzten ikerketetatik ondorioztatzen dutenez, 15 urteko erraustegi eraginak eta egungoak oso antzekoak dira”**

tzialariak azken aldian argitaraturiko txostenetan oinarriturik, Hernaniko jardunaldietan plazaratu zituenak.

**Medikuen esanetan, “erraustegi modernoak ere arriskutsu dira”** Osasuna eta Errausteta Ikerke-

ta Taldea ere gonbidatu zuten hitzordura. Taldeko kide Iñigo Suberbiolak seguru eta aurreratu bezala saldu nahi dizkiguten erraustegi modernoak ere arriskutsuak direla zioen. “Aztertu dituzten ikerketetatik ondorioztatzen dutenez, 15 urteko erraustegi onorioak eta egungoak oso antzekoak dira”.

**Erraustegiaren defendatzaileek, hitz egin nahi ez**

Datu askoz gehiagoren berri eman zen Oronan, erraustegiak dakartzan kalteen inguruan. Osasun eta hezkuntza komunitate osoa gonbidatu

zuten hitzordura, baina guztiek ez zuten gonbita onartu. Osasun publikoko arduradunak ere hizlari moduan parte hartzea nahi zuten GuraSOSek. Azken unera arte, ordezkariaren bat bertaratzea lotzeko ahalgina egin arren, ez zen inor agertu azkenean. “Hutsune hori guretzat esanguratsua izan zen. Gure helburua denei informazioa emateko aukera eskaintzea zen. Ez genuen lortu”, adierazi digute, informazioa zabaldu eta eztabaida sustatzeko Oronan eginiko jardunaldion antolatzaileek. Osasungintzako eta hezkuntzako zenbait profesionalengana jo dutenean ere beldurra sumatu dute, jardunaldioetan parte hartzeak haiengan izan dezakeen eraginengatik. “Eta horrek guri ere kezkatzen gaitu. Gure helburua informazio zabala eskaintzea izan da”, adierazi dute GuraSOSetik.

Jardunaldiotan jasotako informazioa zabaldu nahi dute orain. Gai honi buruzko eztabaida jendartean sustatu, eta orain arte eztabaida honetan parte hartu ez dutenak ere inplikatuarazi. “Erraustegia defendatzen dutenak ez dira sartzen eztabaida honetan. Zergatik? Kezkagarria da”, diote GuraSOSetik.

## GuraSOS mugimendua Gipuzkoara hedatzen hasi da

Denbora gutxi daramate, baina GuraSOS mugimenduaren sarea zabaltzen doa. Denbora gutxian, Andoain, Hernanin, Donostian, Igeldon, Lasarten, Usurbilen taldeak osatu dituzte, Orion ere sortzeko lanetan dabilta. Baina kontzientzia maila altuagoa izan eta erraustetaren zero gunetik hain gertu dagoen ingurune hau gainditu eta hiriburura edota Gi-

puzkoara zabaldu nahi dute euren mezua. Donostiara hasteko, hiriburuko lurretan eraiki asmo baitute erraustegia. Baina honez gain, gogorarazten dutenez, “Donostia osoa arrisku eremuaren baitan dago, gu bezalaxe”. 2-10 kilometro artean eragingo omen du gehien, erraustegiak. Hiriburua osoa harrapatzen du.

Erraustegiak ekar ditzakeen kalteak agerikoak dira, “be-

raz babestu behar dugu” diote euren, guztiona, baina batez ere etorkizuneko belaunaldien osasuna babestea nahi duten GuraSOSetik. Hondakinen kudeaketaren gaian adostasun batera iristea eskatzen dute, beti ere guztion osasuna arriskuan jarri gabe. Eta azken hitza, gizarteak berak izan dezala galdegiten dute. Kontzientzia piztu nahi dute guztiongan,

erraustegiak dakartzan kalteez. Eta erraustegia bultzatzen ari direnei, arrisku ebidenteon aurrean, prebentzio eta babes printzipioak aplikatzea eskatzen diete. “Osasuna dago jokoan. Europak 2020rako birziklagarriak diren hondakinak erraustea debekatuko du. Gure herrikoak azken erraustegia izan behar al du?”, galdetzen dute.



# Liskarretik, adostasun eta kontsentsura igarotzeko deia

**G**izarte gai baten muturreko politizazioa bizitzaren ari gabela diote GuraSOSetik, “hain pertsonala eta transferiezina den osasunean eragiten duen hondakinen kudeaketarena, hain zuzen ere”. Horren aurrean, eskaera argia plazaratu dute. “Pasa gaitezen liskar errealitate batetik adostasun eta kontsentsu errealitate batera”, adierazi dute. Baretze bide bat irekitzea galdegiten diote Gipuzkoako Foru Aldundiari: “obren lizitazio prozesuaren abiadura moteltzearekin hasi dadila eta informazio eta deliberamenduzko bide bat irekitzearekin jarraitu dezala, gai honen gainean akordio batera iristeko asmoz”.

Indar politikoei bestalde, “gai honekiko despolitizazio, gizarteratze eta birbideratze prozesuan lagundu dezaten eskatzen diegu; ikerketa komisioren ekimena bertan behera utziz edota birplanteatuz eta ezta-



“Indar politikoei gai honekiko despolitizazio, gizarteratze eta birbideratze prozesuan lagundu dezaten eskatzen diegu”.

## GURASOS

**“Osasunerako kaltegabetasunaren datuak badituzte, publiko egin ditzaten eskatzen dugu kontraste, eztabaida eta azterketa publikoa egiteko”**

baida gizartean eta modu lasai batean eman dadin”.

Foru Aldundiko bozeramaile Imanol Lasak ezbaian jarri du, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldearen (OEIT) lana, mediku titulua gai honen inguruan iritzia emateko ez dela aski, ardura hori ikertzaileei eman behar zaiela esanez. “Lasa jaunak, elkarrizketa berean, erraustegiak herritarren osasunarentzat kaltegarria denaren ebidentzia zientifikorik

ez dagoela adierazi du. Baina bera ere ez da zientzialaria, politikoa baizik. Zerk legitimatzen du bera medikuei onartzen ez diena esatera?”, galdetzen dute GuraSOSetik.

## Egiten ari den lanagatik, OEIT zoriondu dute

“Zilegi den kezka eta egozinezin hau arinkeriaz hartzea aita-ama hauenganako begirunerik ez izatea dela uste dugu, bai eta inork ondoan eduki nahi ez duen proiektu hau ondoan nahi ez izateagatik alarmistak deitzea ere”, diote aipatu mugimendutik. GuraSOSetik, “erraustegien osasunerako kaltegabetasunaren datuak eta ikerketak badituzte, publiko egin ditzaten eskatzen dugu kontraste, eztabaida eta azterketa publikoa egiteko”. Egiten ari den lanagatik OEIT zoriondu dute.

## Hamarnaka, sinadura katea osatzen

Aste hasierarako jada 6.700 atxikimendutik gora bilduak zituen GuraSOSen manifestuak. Larunbatean ospatu zen Ikastola Egunean Oiarde Kiroldegi atarian ikusi genituen, Haur Hezkuntzaren jaialdira gerturatu zirenen artean sinadura gehiago jaso zituzten. Gogoan izan, noiznahi bat egin dezakezue erraustegia geratzeko manifestuarekin, gurasos.org atarian sartuta.



Ikastolaren Egunean sinadurak biltzen aritu ziren.

beste 10 lagunena esku-ratzea. Atxikimendu katea osatu nahi dute modu horretan, Gipuzkoa osoan.

## Sinadurak Ahaldun Nagusiari bidaliko dizkiote

Bildutako sinadurak Ahaldun Nagusi Markel Olanori helaraziko dizkiete. Bestalde, taldeak kide berriak eskertuko lituzkete.

GuraSOSen zure ekarpena egiteko prest bazaude, idatzi komunikazioa@gurasos.org helbidera.


## Erronka berri bat

Taldetik erronka bat ere proposatzen digute; gu-

tako bakoitzak beste 10 lagunena sinadurak biltzea

eta hamar pertsona hauetako bakoitzak aldi berean,





# Ingemarrekoak, greba mugagabea

Iragarri genizuen etorkizuna kinka larrian duela Ingemarrek. Enplegu Erregulazio Espediente (EEE) berri baten atarian zirela. Maiatzaren 23an izan zuten batzarrean, 6 hilabetez langileak etxera bidal ditzakeen erabakia jarri zuen mahai gainean enpresako zuzendaritzak. Kotsultetarako 15 eguneko epea izan dute gero. Baina negoziazioek ez dute lan gatazka konpondu. Ekainaren 6tik aurrera enpresak bere eskura du, EEEa aplikatzea. Hala egingo balu, urte erdiz lanik gabe geratuko lirakeke, egun Atalluko lantegian lanean diharduten 77 bat langileak.



Egoera azaltzeko, Ingemarreko langileek agerraldia egin zuten aurreko astean.

Egoera delikatua bizi duten honetan, greba mugagabea abiatzea erabaki dute langileek. ELA eta LAB sindikatuko ordezkariak osaturiko langileen batzordeak ekainaren 2an iragarri zuen hartutako erabakia, Donostian egindako agerraldian. Ingemar Taldeko zuzendaritzarengan konfiantzarik ez dutela diote eta grebara doazela. Bi eskaera luzatzen dizkie taldeko zuzendaritzari: batetik, “harria

## LANGILEEN ESKAERAK

**Bi eskaera luzatzen dizkio-  
te taldeko zuzendaritzari:  
harria ekartzea, lan egin  
ahal izateko. Eta bestetik,  
bideragarritasun-plan  
bat aurkeztea**

ekartzea, lan egin ahal izateko, Aldundiarekin izandako bileran hitz eman zen bezala”. Bigarre-

nik, “ganorazko bideragarritasun-plan bat aurkeztea, eta lantegi honekin zer egin nahi duten argi eta garbi esatea”.

## Berregituraketa ugari azken urteotan

Azken 7 urteotan, norabide argi batean lan egin baitu Zuzendaritzak langileen ustez. 2009az geroztik lantegia behin eta berriz berregituratzen aritu dela salatu du Ingemarreko

langileen batzordeak. Asmo argi batekin; plantilla murrizten, lantegia deskapitalizatzen eta ekoizpena deslokalizatzen joateko. Guztia, lana egon badagoenean. Enpresa taldeak Galizian duen plantan lan kontratu berriak sinatzen ari da eta langileak asteburu eta jai egunetan ere lan egin behar izaten dute. Lan karga hau banatzea eskatzen dute Usurbilgo langileek.

## Zuzendariengan konfiantzarik ez

Enpresa talde osoa omen dago egoera zailean. Baina une honetan bereziki, taldea sortu zuen Usurbilgo planta da kinka larrian dagoena. Halare, langileek eskuartean duten informazioaren arabera, egoera honi buelta emateko moduan da enpresa taldea.

Urte hasieran jakin zuten, iaz eginiko bideragarritasun plan baten arabera, “taldea hemendik 6 hilabetera zenbaki positibotan egon daiteke eta 2 urte barru

egungo fakturazioa bikoiztu dezake”.

## Inbertsorarik ez da ageri, oraingoz

Honez gain, Usurbilgo lantegiak bizi duen egoera hobetzeko, langileek aditzera eman dutenez, “Zuzendaritzak ba omen dauka inbertsore bat, eta esan digutenez, ekainaren hasieran bideragarritasun-plan baten zirriborroa aurkeztuko du”. Momentuz ordea, “ez da inbertsorarik aurkitu”. Eta ez da izan langileak ahalegindu ez dire-

lako. Langileen Batzordeko ELA sindikatuko 4 kide eta LABeko ordezkari bat Usurbilgo Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean aritu dira, “inbertsoreak erakartzeko”. Baina aipaturikoa; momentuz ez dute inbertsorarik aurkitu.

## Zuzendaritzaren “kudeaketa txarra”

Konfiantza galdu dute enpresa taldeko zuzendaritzarengan. Taldeko Zuzendaritzaren “kudeaketa txarra” salatu dute, “aktibo zirkulatuzailea-

ren kutxa hutsik utzi dute eta”. Honez gain, 2014an langileek soldataren zati bat uztea adostu zen materiala erosteko. Diru hori aurten berreskuratu behar zuten, “baina ez dakigu nora joan den”. Egoera honetan, konponbide bat aurkitzeko langileek egindako ahalegin guztien ostean egoera bideratu ez dela ikusita, aski dela esan dute. Astelehenaz geroztik, enpleguaren alde, lantegiak zabalik eta martxan segi dezala eskatzeko greba mugagabea dira Ingemarreko langileak.

# Elkartasuna eta laguntzen segitzeko prestutasuna adierazi die Udalak

Ingemar ixtearen aurka agertzeaz gain, “grebara doazen langileei, elkartasuna eta gure esku dagoena egiteko konpromisoa” adierazi die Usurbilgo Udalaren izenean, Xabier Arregi alkateak, greba mugagabea abiatzea erabaki duten Ingemarrek langileei.

Udal web orrialdean, usurbil.eus atarian argitaratu duen idatzian, lan gatazka hau bideratzeko egin diren negoziatuetan, Udalak, Aldundiak eta langileek defendatu dituzten baldintzak betetzeko aukerak egon badaudela dio Arregik, “baina konpromisoa eta plan serioa behar da horiek martxan jartzeko”. Honatx alkatearen idatzia bere osotasunean:

“Ingemar Taldeko Usurbilgo plantak okerrera egin du azken urteetan, kinka larrian geratzen. 2009an berregituraketak hasi zirenetik, Galiziako zuzendaritza-taldeak ez du proposamen sendo eta eraginkorrik aktibatu, eta Usurbilgo plantak ez du aurrera egin.

Panorama beltz honetan,



Udal gobernuaren ustez, “aukerak badaude, baina konpromisoa eta plan serioa behar da horiek martxan jartzeko”.

langileek pairatu behar izan dituzte egoera larriaren ondorioak, zinez latzak eta mingarriak.

Azken hilabeteetako ahaleginean ez da lortu inbertsore fidagarrik. Saiakerak egin dira, baina alferrik, orain arte. Langileek, diputazioak eta udalak hiru baldintza jarri dituzte negoziatuetan:

1. Bideragarritasun-plan sendoa adostu behar da, eta horren arabera inbertsio-plana.

2. Usurbilgo planta ezin da itxi bestelako interes arrotzen mesedetan.

3. Langileen baldintzak eta eskubideak errespetatu egin behar dira.

Aukerak badaude, baina konpromisoa eta plan serioa behar da horiek martxan jartzeko.

Langileek behin eta berriz erakutsi dute borondate ona eta jarrera positiboa. Baina azken muturrera iritsi diren honetan, grebarako asmoa azaldu dute ezinbestean. Bihoakie gure elkartasuna, animoa eta laguntzeko prestasuna.

Xabier Arregi”.

## Prekarietatearen aurkako astea

Prekarietatearen aurka, lana eta aberastasuna banatzearen alde LAB sindikatuak deituriko Borroka Astearen baitan, eskualdeetan kotxe karabana antolatu zituzten ekainaren 3an. Buruntzaldean kinka larrian diren bi lantegi lotu zituen; Usurbilgo Ingemar eta Adunako Unipapel. Atallutik abiatu ziren ekimenaren baitan, Ingemar aurreko biribilguneari hainbat itzuli eman zizkieten, jada greba mugagabearen diren langileei elkartasuna adieraziz. Ingemar eta Unipapel ez ixtea eskatu zuten. Honez gain, protesta ekimena, prekarietatearen aurkako astean egin zuten, 1.200 euroko soldata eta 35 orduko lan astea izateko aldarrie ere tartea egin zieten. Diru-gosearen aurrean, langileen osasunaren defentsan irten ziren LAB-eko kideak errepidera.



Ekainaren 3ko kotxe karabana Ingemarretik abiatu zen.

## Azken zazpi urteotan 100 langile galdu ditu Usurbilgo plantak

■ 2009: 175 langile inguru zituena Ingemarrek Usurbilen. Lan taldeko %9,99a, 20 lagun kaleratu zituzten urte hartan, EEE bat saihesteko.

■ 2014/6: hitzartu zuten akordio baten arabera, “plantillak soldataren zati bat utzi zuen, materiala erosteko eta ganoraz

ekoitzi ahal izateko”. Utzitako dirua aurten jaso behar zuten arren, ez dakite diru hori non dagoen.

■ 2015/11: Ingemar Taldeko administratzaile bakarraren plan baten berri izan zuten langileek. Plan horren helburua Usurbilgo lantegia itxia

zen. Plan honen berri izatean, “bilerak egin ziren taldeko Zuzendaritzarekin, eta dena ukatu zuten, handik aurrera proiektu hura desagertu zen”.

■ 2016 urte hasieran: iaz eginitako bideragarritasun plan baten arabera, “taldea hemendik 6 hilabetera zenbaki positibotan

egon daiteke, eta 2 urte barru oraingo fakturazioa bikoiztu dezake”.

■ Gaur egun: 74 langile ditu Usurbilgo lantegiak, azken urteotan 20 langile kaleratu, kontratuak eteteko 2 EEE, eta beste 30 langile kaleratzeko EEE baten ostean.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**txirriStra**  
**TABERNA**  
 -Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak  
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Udan haur sahararrak etxean hartzeko deia

**M**artxan da aurten ere “Oporrak Bakean” egitasmoa. “Helburua 9 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpamentuetan bizi duten egoera gatazkatsutik urrunduz, beste errealitate bat ezagutzeko aukera ematea da eta bide batez, desertuan udako bi hilabete horietan (uztaila eta abuztua) pairatzen den tenperatura altuetatik babestea”, ohartzarazi dute elkartasun ekimenarekin bat egin duen Usurbilgo Udaletik. Azken lau urteetan babestu du egitasmoa Udalak. Tarte horretan, bi haur saharar izan dira oporretan Usurbilgo familiek harreran hartuta.



Usurbilgo Udalak babesten du ekimen hau. Argazkian, aurreko batean egin zen harrera ekitaldia.

Uda honetan haur saharar bat etxean hartu nahi duenak, 943 377 110 telefono zenbakian edo [gizartelangilea3@usurbil.eus](mailto:gizartelangilea3@usurbil.eus) helbidean. Izen emateko epea ekainaren 15era artekoa izango da.

# San Juanetako oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak

**E**rainaren 15etik 21era, Kaffa kafetegian egongo dira salgai. Oilasko biltzaileen bazkaria ekainaren 25ean ospatuko da, 14:00etan Kalezarko festetan. Bazkaltzeko etxeko tresnak etxetik eraman beharko direla ohartarazi dute antolatzaileek. Aurten gogoan izan, San Juan bezperan, ekainaren 23an hasi eta lau egunez luzatuko direla aipatu auzoko festak.

## Santixabeletako jubilatuaren bazkaria

Uztailaren 3rako antolatuko dute, iganderako honenbestez, Atxega jauregian. Bazkaritarako txartelak aurrez eskuratu behar dira, ekainaren 21a baino lehen, edota agortu aurretik, Artzabalgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkarte edo Agi-



Iazkoan, Oilasko biltzaile lanetan ere gaztetxo asko animatu ziren. Bazkarirako txartelak ekainaren 15etik 21era egongo dira Kaffan salgai.

nagako Arrate jubilatuen egoitzetan, baita Usurbilgo Udaleko Gizate Zerbitzuetan ere.

Bazkaritara joan ahal izateko 60 urte beteta edo aurten betetzea eskatuko da. Usurbilen erroldatua egotea ezinbestekoa izango da. Bi salneurri finkatu dituzte; 20 eurotan eskuratu ahalko dituzte txartelak, 60-65 urte artekoek; 10 eurotan, 65 urtetik gorakoek.

## Imersoren opor eskaintza

Jubilatuentzat antolatzen diren oporraldietan parte hartu nahi dutenek, ekainaren 17a baino lehen bideratu beharko dute eskaera Usurbilgo Udaleko Gizate Zerbitzuetan. 7-15 egun arteko egonaldia egiteko aukera eskaintzen du Imersok. Informazio gehiago, Gizate Zerbitzuetan edo 943 377 110 telefono zenbakian.

## DYAren gunea frontoian

“Zure eskuek bizi bat salbatu dezakete. Bihotz geldialdia izan ondorengo lehen 5 minutuetan esku hartzeak, biziraupena %70era igo dezake. Erraza da eta eskura daukazu, nahiz eta aurrez osasun ezagutzarik ez izan. 10 minutu nahikoak dituzu. BBS/RCP ikasi!” animatzen dute DYAtik. Boluntario talde bat frontoian izan zen ostiral arratsaldean, lehen sorospenei buruzko argibideak ematen. Urtean zehar gai honi buruzko prestakuntza saio ugari eskaintzen dituzte. Hitzordu hauei buruzko informazioa [dyagipuzkoa.com](http://dyagipuzkoa.com) atarian jaso dezakezue.

## Lanbide Eskola, matrikulazioa

Ekainaren 17ra arte egongo da zabalik aurrematrikulazioa Lanbide Heziketan. Informazio gehiago: 943 364 600 / [lhusurbil.eus](http://lhusurbil.eus) [eskola@lhusurbil.eus](mailto:eskola@lhusurbil.eus)

## Oinarrizko Lanbide Heziketa, izen ematea irekitzeaz

15-17 urte arteko gazteei zuzenduriko Oinarrizko Lanbide Heziketan ere matrikulazio garaia dute. Ile-apainketa eta estetikan, eta sukaldaritza eta jate-txe-arloan oinarrizko titulua eskuratzeko aukera eskaintzen du Oinarrizko Lanbide Heziketak. 2.000 orduko bi ikasturteko hezkuntza eskaintzaz ari gara guztira. Ziklo hauen baitan, enpresetan 260 orduko lan praktikak egiteko aukera dago. Eta sarbide zuzena eskaintzen du erdi eta goi mailako zikloetara. Informazio gehiagorako edo matrikulatzeko: 943 360 465 [lhi@usurbil.eus](mailto:lhi@usurbil.eus)

## Albiste onak goi mailako eskubaloian

O horezko mailan lehiatu den Bera Bera taldeak ligako txapeldun amaitu du. Talde kideen artean da Esther Arrojeria. C.D. Bidasoa talde irundarra berriz, eskubaloiko maila gorenera, Asobal Bauhaus ligara igo da. Talde horretako kapitaina ere usurbildarra dugu; Asier Zubiria. Zorionak bioi!



Lagunak pankarta eta guzti joan ziren Artalekura, Asier Zubiria animatzera.

### Datorren astean, Usurbil K.E.-ren batzarra

Ekainaren 18an egingo da batzarra Sutegiko auditorioan. "Garrantzizko erabaki asko hartuko dira etorkizunari begira eta jokalaria, guraso, entrenatzaile, zaletu eta bazkide guztiei dei egiten zaie bertaratu daitezen", luzatu

dute gonbita.

Batzarrean bertan nahiz alde z aurretik usurbilke@gmail.com helbidera ekarpenak egiteko aukera izango da, ekainaren 15era arte.

- Eguna: ekainak 18 larunbata.
- Ordua: 11:15.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Deitzailea: Usurbil K.E.

### Usurbil K.E.-ren eguna

Ekainaren 25ean ospatuko dute. Afarria Askatsuna plazan izango da. Txartelak ostegun honetatik aurrera eskuragarri, ekainaren 22ra arte edo txartelak agortu arte. 14 urtez azpiko haurrenak 10 euro, 14 urtetik gorakoena 20 euro. Bordatxon eta Aitzagan izango dira salgai.

## Futbol taldeak osatzeko deialdia

2016-17 denboraldirako prestaketa lanetan da Usurbil F.T. Batetik nesken taldeak osatu nahi ditu, kadete, jubenil eta erregional mailan. Alebinen taldea ere osatu nahi du. Animatzen zareten guztiokin, entrenamendu saiook antolatu dituzte asteotarako Haranen:



Nesken taldeak osatzeko entrenamenduak Haranen egingo dira datorren astean, ekainaren 17 ostirala, 17:30ean hasita.

### Ekainak 10, ostirala

17:00 Alebinen futbol taldea osatzeko entrenamendua Haranen: "Alebinentzako deialdia, 2005ean jaiok. Parte hartzeko gogo duenak Harane futbol zelaira igo dadila entrenamendu saio bat egitera. Entrenatzeko arropa eta oinetako eroak eramatea komeni da".

### Ekainak 17, ostirala

18:30 Nesken futbol taldeak osatzeko entrenamendua Haranen: "Kadete, jubenil eta erregional mailako nesken taldeen aldeko apustua eginez, adin horietako neskei deialdia luzatzen diegu entrenamendu saiora".

Antolatzailea: Usurbil F.T.

## Pilota partidak

### Ekainak 10 ostirala 19:30 Usurbil

Azken laurdenak  
Mikel-Altuna / Apezetxea-Labaka

### Ekainak 11 larunbata 12:00 Usurbil

Gipuzkoako gomazko paleta gurpildun aulkietako 3. eta 4. postuak:  
Aingeru Senperena (Bidania)  
Beñat Lizaso (Usurbil)

### Usurbilgo 44. Pilota Txapelketa:

Azken laurdenak  
Azketa-Atxa / Txiapuso-Biain

### Gipuzkoako gomazko paleta gurpildun aulkietako Finala:

Edorta De Anta  
Jurgi Olasagasti (Usurbil)

### Ekainak 14 asteartea, 19:00 Usurbil

Olarra-Altuna / Huizi-Imaz  
Exposito-Odriozola /  
Etkezaretza-Gesalaga

### Berria Txapelketa

Pagazpek Berria txapelketako kanporaketa jokatu zuen aurreko igandean. Erreka taldeak egin du aurrera.

## Igande honetan, Lizarrusti-Larraitz mendi irteera

"Usurbildik Lizarrustira autobusez abiatuko gara, Aralarko Ganbo mendia igo eta Txindokiren albotik Larraitzera joateko". Goizeko 07:00etan jarri dute biltzeko hitzordua ekainaren 12an, Oiaro Kiroldegian. Txangorako izen ematea asteazken honetan itxi dute antolatzaileek. Informazio gehiago: andatza.com

## Alebin mutilak, Gipuzkoako finalerdietan

Udarregi eskubaloit taldea, Gipuzkoako Txapelketako finalerdietarako sailkatu da. Finalerdia, larunbat honetan, ekainaren 11n goizeko 10:00etan jokatu dute Urrietako udal Kiroldegian, Maria eta Jose C taldearen aurka. Finalerdietan nagusitzen direnek, bihar amunean, ekainaren 12an jokatu dute final handia, kiroldegi eta ordu berean, goizeko 10:00etan.

## Tximeleta taldeen ikasturte amaierako ikuskizuna

Ikasturte bukaerarekin batera Tximeleta taldearen jaialdiak ospatu ohi dira. Ekainaren 9an arratsaldeko 17:30etik aurrera, gimnastika erritmikoko, gimnastika dibertigarriko eta Hip-Hopeko emanaldiak iragarri dituzte Oiaro kiroldegiak.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**Josue**  
Igeltseritza

606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

## ETXEBIZITZA

## Salgai

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela handi, 2 komun, saloi handia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. Tel: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m<sup>2</sup>. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosi nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitzi

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

## Alokairuan

2 logela alokatzen ditut 300 euroratan Wifi-a doan. 681 393 183.

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila nabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Suzuki Vitarra salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630

490 844.

Autokarabana salgai 69.000km. 37.000 euro. 627596627

Garaje itxia alokatzen dut, 20 metro koadro, Kale Nagusia 22-an. 618860270

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 60.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxi-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motoarra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Pertsona helduak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, asteburuetan eta jai egunetan

eta ospitalean gauak pasatzeko. 632 754 243. Piedad.

Neska bat lan bila dabil, garbiketa lanetan eta pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala edo orduka. 646 062 692.

Psikoterapia humanistako ikasketak dituen pertsona bat eskaintzen da, pertsona helduei laguntzeko. Prezioa hitz egin daiteke. Tel 649 589 213. Peio.

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajaregia.com

Estetizista bat behar da ilea-paindegi batean lan egiteko. 943361971

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Emakume bat behar da asten hiru egunetan: bazkaria eta garbitasuna egiteko. Tel. 609 403 081

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. Tel. 631 224 621 Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etkez etxe txakurri ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburuetan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest



## Zorionak Aritz!

Ekainaren 6ean

2 urtetxo bete

zenituen.

Muxu bat Odei eta

etxeokoen partez.



eskaintzen da. Esperientziaduna haurrek zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jabetxeren batean harraskako garbiketarak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egunetan nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gaugan laguntzaile moduan,

orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketara, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketara egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketara... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrek zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

#### BESTELAKOAK

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldeira Oiaro Kirolegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Agapurni urdin bat aurkitu genuen frontoian, maiatzaren

12an. Zurea bada, deitu 609 413 883 telefono zenbakira.

Katuak oparitzen ditugu Donostia elkartearen. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarr bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Quechua markako eta kolore arroseko anorak bat galdu da. 678 084 020.

Okly markako eguzkitako betaurreko graduatu eta beltzak galdu ditut, Aginagako Mapil-en dagoen bankuaren ondoan. Aurkitu badituzu deitu 649 403 890

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxico-si-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki

bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

NOAUAren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUAtik pasa. Dominan Diputacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko gara-jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailan jaioa. Norbaitek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Egurarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloak. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korroes - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitzea.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 09** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 10** GIL MARTIN Kale Nagusia, 24, behea Lasarte

**Larunbata 11** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 12** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Astelehena 13** GIL MARTIN Kale Nagusia, 24, behea Lasarte

**Asteartea 14** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 15** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

## Ekainak 09 - ekainak 19

**Osteguna 16** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 17** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 19** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda ekaina

## 10 ostirala

- **Alebinen futbol taldea osatzeko deialdia**  
17:00etan Alebinen futbol taldea osatzeko deialdia Harane futbol zelaietan.

## 11 larunbata

- **Ziortzaren kanpaldirako guraso bilera**  
11:00etan Sutegin.
- **The Hastelen's** taldearen kontzertua  
20:00etan Benta pareko plazaan.

## 12 igandea

- **Lizarrusti-Larraitz** mendi irteera  
07:00etan Oiaro Kiroldegitik (izena aurretik eman behar zen).
- **Denboraldiko azken Tipi-Tapa**. Aitzaga, Txirristra, Bordatxo eta Artzabal.

## Potxoenean da "Ikimilikiliklik"

Aurreko astean inauguratu zen "Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsitatea" izeneko erakusketa. Goiz partean, hedabideen aurreko agerria egin zen eta arratsaldean zabaldu ziren ateak. Uztailaren 3ra bitarte egongo da Potxoenean ikusgai.

Aurretik Donostian eta Miarrizten egon da ikusgai. Usurbilgo Udalak eta Jexux Artze Kultur Elkarteak egin duten ahaleginari esker, orain, etxean bertan ikus/entzun dezakegu.

### Potxoenean ikusgai

- Epea: ekainak 3-uztailak 3.
- Orduetgia: goizez astelehenetik igandera:



Aurreko ostiralean egin zen Artzeren in-guruko erakusketaren inaugurazio ekitaldia.

12:00-14:00. Arratsaldeaz asteazkenetik larunbatera: 18:00-20:00.

- Sarrera: doan.
- Antolatzaileak: Jexux Artze K.E. eta Usurbilgo Udala.
- Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

## Denboraldiko azken Tipi Tapa

Azken Tipi-Tapaz gozatu ahalko dugu igande honetan, ekainaren 12an, goiz eta eguerdi partean, Artzabal, Bordatxo, Txirristra eta Aitzaga tabernetan. Gogoan izan, edaria eta pintxo berezia, 2 euroren truke. Eta 15:00etan, 150 euroko erosketa balearen eta 2 laguntzako afaria zozketatuko dituzte, Tipi-Tapa txarteleko zigilu guztiak eskuratu eta txartela tabernetako kutxetan uzten duzuenon artean.



Maiatzeko zozketan, Iñaki Maritzalarri 150 euroko erosketa balea egokitu zitzaion.

### Datozenak

#### Datorren astean, Zumarteren ikasturte amaierako kontzertuak

Matrikulazio epea igarota, ikasturtea agurtzeko garaia heldu zaie musika eskolakoiei. Ekitaldiz beteriko musika ekitaldiak iragarri dituzte, datorren asterako:

#### Ekainak 13, astelehena

- 18:30 Pianoko ikasleen audizioa, Zumarte Musika Eskolako Ganbaran.

#### Ekainak 14, asteartea

- 18:00 Musika Txokoko ikasleen emanaldia Udarregi Ikastolan.

#### Ekainak 15, asteazkena

- 18:30 Abesbatzen emanaldia San Esteban Elizan.

#### Ekainak 16, osteguna

- 18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegiko auditorioan.

#### Ekainak 17, ostirala

- 18:00 Pop-Rock-Folk taldeen emanaldia frontoian.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

**ESKAIOLA eta  
PLADUR**

Joxean Elorza

**699426042**

USURBIL



**URPI** Leihook  
urpileihook@gmail.com

☎ 943 50 80 95 • 688 81 93 33

nagusia 10 (atzek) USURBIL

**ELORZA**

O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.

**661 804 688**

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Aukerak zabaltzera goaz

**Ekitaldiak**

# ehbildu

## **E 10** GAZTEAK

19:00etatik aurrera Sutegi aurrean  
GAZTEOK gure aukerak zabaltzera goaz  
20:00etan argazki masiboa futbito  
partiduen artean

## **E 11** KARTEL PEGAKETA

19:00etan, kartel pegaketa frontoitik hasita

## **E 17** AUKERA BILTZAILEAK

19:00tan Aitzagatik abiatuta, oilasko biltzailez  
jantzi eta EHBilduk eskaintzen dizkigun  
AUKERA EZBERDINAK bilduko ditugu

## **E 18** BOZKA GUTUNKETA

12:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan  
etxez etxe banatzeko bozkak sobreetan  
sartzen arituko gara

## **E 24** SAN JUANETAN

19:00etan, Kalezarren eskuorri banaketa

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

# 188.000 €<sup>tik</sup>

**AZKEN  
ETXEBIZITZAK!**

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sub>n</sub>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraза handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

## USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>º</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

# 943 46 88 60

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



# IRRIEN LAGUNEKIN

kanta eta dantza



Ekainak 16, osteguna  
17:00h frontoian

noqua

